

9. ETXEKO HIZKUNTZA

AZTERTZEKO ARLOA

Etxeko ohiko hizkuntza aztertzea da asmoa. Bikotearekin, gurasoekin, seme-alabekin... Euskaraz aritzen al gara? Zein da etxeko betiko hizkuntza? Izan al da hizkuntza ohituren aldaketarik etxean?

Solasaldiez gain, euskara ohiko hizkuntza al da etxean? Irratia edo telebista piztuta ditugunean etxean, zein da ohiko hizkuntza? Etxera heltzen diren egunkari edo aldizkariak zein hizkuntzatan daude?



ISPILUARI BEGIRA

ETXEKO OHIKO HIZKUNTZA: SOLASALDIAK, IRRATIA, TELEBISTA, IRAKURGAIAK...

Bikotearekin, gurasoekin edo seme-alabekin dugun harremanean funtsezkoa da hizkuntza, hizkuntza bakoitzak bere mundu ikuskerara duelako. Etxeko hizkuntzaren inguruan hausnartzeko zenbait galdera dira honakoak:

GALDERAK:

- > Bikotearekin, pisukideekin, gurasoekin edo seme-alabekin, zein da etxeko ohiko hizkuntza?
- > Izan al da aldaketarik hizkuntza ohituretan?
- > Seme-alabak dituzten gurasoen kasuan, seme-alabek ekarri al dute aldaketarik etxeko hizkuntzan?
- > Etxean ba al dugu irratia entzuteko ohiturarik? Zein hizkuntzatan?
- > Telebista, oro har, euskaraz ikusten al dugu?
- > Ba al dugu hizkuntzaren eta kulturaren transmisioaren inguruko kontzientziarik? Euskal musika, bertsolaritza, literatura... ezagutarazten al diegu seme-alabei edo etxekoei? (beste kontu bat da guk ere ezagutzen ote ditugun).
- > Zein egunkari edo aldizkari irakurtzen da normalean etxean? Euskaraz al da?
- > Jolasak, mahai-jokoak eta antzekoak hautatzen ditugunean, euskarazkoak al dira?



ERAGIN BURUARI

Euskara, munduari begiratzeko leihoa

· Euskarak berarekin dakar euskal kultura eta mundu ikuskera zehatz bat ere. Etxean erdaraz aritzen garenean, beste modu bateko kultura eta ikuskera lehenesten dugu. Euskaldunak garenez, gure mundua, errealitatea eta ikuskera partekatzeko, ez dago euskaraz aritzea bezalakorik. Aldamenekoari daukagun onena emateko modua ere bada euskaraz aritzea. Euskaraz egitea. Euskara erakustea. Ahalegintzeko erraztasunak eta bitartekoak eskaintzea. Gehien maite ditugunak euskarara ekarrita, egin diezaiekegun opari ederenetakoa ari gatzaizkie egiten.

Irratia, egunkariak, aldizkariak

· Euskarazko eskaintza lehenetsi etxean ere. Bertako hizkuntza eta mundu ikuskera dakarte euskarazko hedabideek.

Oherako ordua

· Euskarazko ipuinak eta abestiak hautatu haurrak lokartzerakoan.

ALORRA:

HEDABIDEAK

HELBURUA:

Etxeoko ohiko hizkuntzaren inguruko hausnarketa egitea, eta ahal balitz, hizkuntza ohitura aldatzea euskara lehenesteko.

AZTERGAIAK:

Etxeoko ohiko solasaldiak, irratia, telebista...

Eremua: etxea, familia.

ARBURA:

Pertsonala.

URRATSAK:

- Euskaraz egin etxeokoen.
- Euskarazko irratia eta telebista kateak lehenetsi.
- Euskarazko jolasak, abestiak eta ipuinak hautatu, haurrekin jolasteko edo haurrak lokartzeko.



I+D
IDEIAK

- Etxean euskarazko egunkariak eta aldizkariak ohikoak direla ikusarazi haurrei eta gazteei.

- Euskarazko ipuinak eta abestiak hautatu haurrak lokartzerakoan.

- Euskarazko marrazki bizidunak, pailazoak edo saioak hautatzen lagundu haurrei, telebistan, DVDetan zein internet bidez dagoen eskaintzarekin.

- Euskarazko irratia eta telebista kateak lehenetsi.
